



**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILAREN MENDEKO IKASTETXE PUBLIKOETAN ESKOLA-GARRAIOKO LAGUNTZAILE-ZERBITZUA KONTRATATZEKO OINARRI TEKNIKOAK. 2008/2009 IKASTURTEKO URTARRILA-EKANA BITARTEKO EPERAKO ETA 2009/2010 IKASTURTE OSORAKOAK. .(Expte. C.C.C. C06/09/2008)**

## **1.- XEDEA**

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokatuta dauden Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetan Eskola Garraioko Laguntzaile Zerbitzua kontratatzea, aipatu kontratua esleitzen den datatik 2010eko ekainaren 30era.

## **2.- IBILBIDEAK**

Ibilbideen zerrenda zehatza eta ibilbide bakoitzaren iraupena dagokion Lurralde Ordezkaritzak jakinaraziko die esleipendunei, ikasturtea hasi baino lehen.

## **3.- KONTRATATU BEHARREKO ORDU-KOPURUA**

Atal bakoitzerako kontratatu behar den gutxi gorabeherako ordu-kopurua **agiri honi erantsitako koadroan** jasotakoa da; nolana ere, gerta liteke kopuruak aldatzea, faktore hauen arabera:

- Ikastetxe bakoitzerako onartutako eskola-egutegia.
- Premia berriei aurre egin behar izatea.
- Geraleku gehiago edo gutxiago egoteagatik ibilbidea luzatu edo laburtzea.
- Ibilbide jakin batean ikasle-kopuruak gora edo behera egitea.

## **4.- ORDUTEGIA**

Ikastetxe bakoitzerako ezarritako eskola-egutegiaren arabera egingo da garraioa, eta ikasturteko eskola-aldi bakoitzean gerta litezkeen eta ekainean zein irailean erraz gerta litezkeen ordutegi- eta ibilbide-aldaketetara egokituko da; gainera, ezohiko egoerei erantzuteko egiten diren eskaerei erantzun zaila.

## 5.- ESKOLA-GARRAIOKO LAGUNTZAILEEN BETEBEHARRAK

Eskola Garraioko Laguntzaile Zerbitzua ezartzean, ikasleen garraioan segurtasun handiagoa lortu nahi da, geralekuan daudenetik ikastetxera iritsi arte eta itzulerako bidaiari.

Laguntzaileen betebeharrak –jakitera emateko, inola ere ez murriztaile izateko–, honakoak dira, besteak beste:

1.- Laguntzaileak ibilbide osoa egingo du; lehen geralekuan igo eta azkeneraino joango da. Haurrei ibilgailura igotzen lagunduko die, batez ere eserlekuetan egokitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleei, eta beren eserlekuetan daudela eta gidariari trabarik ez diotela egiten ziurtatuko du. Beharrezkoa izanez gero, mugikortasun mugatuko pertsonentzat zerbitzuko ateetatik gertu beharrezkoak diren eserlekuak gordeko direla zainduko du. Uneoro haurren ongizateaz arduratuko da. Autobusera pertsona arrotzik ez dela sartuko kontrolatuko du eta, itzulerako bidaiari dagokionez, haur bakoitza dagokion geralekuan jaitsiko dela egiaztatuko du. Haurrei ez zaie autobusa edo geralekua aldatzen utziko, Zuzendaritzak berariaz horretarako baimena eman ezean. Haurrei autobusetik ikastetxe barruraino lagunduko die, eta ikasleak ikastetxeko arduradun batekin utzi.

2.- Haurrak beren gurasoek edo haiek hautatutako pertsona batek jasotzen dituztela egiaztatuko du, eta, horrelakorik ezean, ez dio haurrari autobusetik jaisten utziko eta gurasoekin harremanetan jartzen saiatuko da. Era berean, ikastetxeari eta enpresari gorabehera horren berri emango die, eta enpresak adierazi beharko dio zein neurri hartu behar duen.

3.- Autobusa erabil dezaketen haurren zerrenda bat jasoko du, eta zerbitzua zerrendako haurrek bakarrik erabiltzen dutela kontrolatuko du.

4.- Bidaiari zehar sortutako edozein gorabehera edo arazo – geralekuak aldatzea, ordutegia ez betetzea...– jakinaraziko die bai ikastetxeko zuzendaritzari bai bere enpresari.

5.- Ibilgailuaren segurtasun-mekanismoak eta botikinaren kokalekua ezagutuko ditu.

6.- Bidaiari ikasleren bat ondoezik jartzen bada edo bestelako gorabeheraren bat gertatzen bada, umea zainduko du eta, beharrezkoa bada, larrialdiko osasun-zerbitzuei dei egingo die.

7.- Segurtasuna bermatze aldera, motxilak, poltsak eta bestelako fardelak toki egokian eta korridore zein sarbideetan trabarik egin gabe jarrita daudela egiaztatuko du.

8.- Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritza bakoitzeko garraio-arduradunekin elkarlanean ariko da Eskola Garraioko Zerbitzua hobetzera bideratutako datuak hartzen eta horiek egiaztatzen.

9.- Autobus-konpainia eta ibilgailuaren matrikula egiaztatuko ditu, eta autobusa ibilbiderako hautatutakoa ez bada, horren berri emango die bai ikastetxeko zuzendaritzari bai bere enpresari.

10.- Zerbitzua eskaintzen duen bitartean, eta zerbitzu horren izaerari erreparatuta, ezingo du ikasleen aurrean erre eta bere jokabidea zuzena izango da.

11.- Ikasleren batek jarrera arazotsua ageri badu, lasaitasunez erantzungo du, betiere jokabide erasokor edo bortitzak saihestuz. Gertatutakoaren berri emango dio ikastetxeari, neurri egokiak har ditzan.

12.- Ziurtatu behar du bidaiari zehar ez dela inongo umerik autobusetik kanporatuko.

13.- Erdiko edo atzeko zerbitzu-atearen inguruan eseriko da.

14.- Zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa den beste edozein eginkizun beteko du.

## **6.- ESKOLA-GARRAIOKO LAGUNTZAILEAK JOLASTOKIAN**

Eskola-garraioko laguntzaileak jolastokian lan egiteko kontratatzearen xede bakarra bidaiari antolaketa logistikoa erraztea da.

Eskola-garraioko laguntzaileek jolastokian dituzten eginkizunak –jakitera emateko, inola ere ez murriztaile izateko– honakoak dira, besteak beste:

1.- Laguntzailea haurren segurtasunaz arduratuko da, haiek ibilgailuetatik atera eta eskolak hasten diren bitartean. Era berean, eskola-eguna amaitzean, haurrak zainduko ditu jolastokian, bakoitza bere ibilgailura igotzen den arte.

2.- Haurrak ikastetxeko jolastokian egongo dira, eta laguntzaileek ziurtatu beharko dute ez direla hortik beste inora joango.

3.- Haurren ongizateaz arduratuko da, eta ziurtatu beharko du ez dutela beren burua arriskuan jartzen jolas arriskutsu, borroka eta abarreatatik, eta jolastokian dauden denbora guztian begiradapean eta kontrolpean eduki beharko ditu.

4.- Ikastetxeko botikina non dagoen jakingo du, eta jolastokian dagoen bitartean ondoezik jartzen den edozein haur zainduko eta sendatzen saiatuko da.

5.- Haurren aurrean begiramena eta jokabide egokia agertuko du.

6.- Jolastokian egon bitartean sortutako edozein gorabehera edo arazo jakinaraziko die bai ikastetxeko zuzendaritzari bai bere enpresari.

7.- Ikasleren batek jarrera arazotsua ageri badu, lasaitasunez erantzungo du, betiere jokabide erasokor edo bortitzak saihestuz. Gertatutakoaren berri emango dio ikastetxeari, neurri egokiak har ditzan.

8.- Zerbitzua gauzatzeko beharrezkoa den beste edozein eginkizun beteko du.

## **7.- BAJAK BETETZEA**

Bat-batean eta ustekabeen sortutako bajak berehala beteko direla ahalik eta gehien bermatze aldera, enpresa esleipendunak ordezeko langileen izenen zerrenda izango du eskura. Bestalde, ordezkapena egingo den berme osoa eskaini beharko du hezkuntza bereziko ikasleren bat garraiatzen duen ibilbideen kasuan, eta baita apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuak, eskola-umeak eta adin txikikoak garraiatzeko segurtasun-baldintzei buruzkoak, xedatzen duenari jarraiki langile horien presentzia derrigorrezkoa denean ere.

## **8.- BESTELAKO XEDAPENAK**

Eskola Garraioko Laguntzaile Zerbitzua behar duten ikastetxeen eskola-egutegiak emango zaizkio enpresa esleipendunari, eta baita garraiatu beharreko ikasleen zerrenda, geralekuak eta ordutegiak ere.

Zerbitzuaren funtzionamendu egokian gerta litezkeen alterazioak – haur-kopuru desegokia, helduek ibilgailuak erabiltzea eta bestelako egoera irregularrak– ikastetxeko zuzendariaren eta enpresa esleipendunaren jakinaren gainean jarriko dira. Enpresak, era berean, Lurralde Ordezkaritzetako Eskola Garraioko Arduradunei horren berri emateko obligazioa izango du.

Laguntza-zerbitzua eskaintzen duen enpresak behar bezala justifikatu beharko ditu gauzatze-epean eskaintza betetzeko helburuz abiarazi dituen prestakuntza-ekintzak.

## **9.- LANGILEEN ADINA ETA ANTZINATASUNA**

2007/2008 ikasturtean hiru Lurralde Historikoetan laguntza-zerbitzua eskaini duten langileen adina eta aitortutako antzinatasuna lehiaketa honen Klausula Administratibo Partikularren III. Eranskinean zehazturik daude.